



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12  
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Sare sozialen erabilera moduak  
eta maiztasunak Gasteizko  
nerabeen kolektiboaren baitan**

*Joseba Fernandez de Landa*

42-49 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.05>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



## Sare sozialen erabilera moduak eta maiztasunak Gasteizko nerabeen kolektiboaren baitan

Joseba Fernandez de Landa Aguirre  
*joseba.fdl@gmail.com*

### *Laburpena*

Ikerketa honen helburua Gasteizko nerabeek zer sare sozial eta nola erabiltzen dituzten argitzea da. Horretarako, Gasteiz hiriko 12 eta 18 urte arteko 700 gazte inguru inkestatu dira, inkesta egituratu baten bitartez. Besteak beste, sare sozial bakoitza zer maiztasunez erabiltzen duten ezagutzeko asmoarekin eta adin edota sexuaren arabera ezberdintasunik badagoen erabilera horretan. Horrekin batera, sare sozial hauek zertarako erabiltzen dituzten plazaratu nahi da eta hauek noiz eta ze tresnen bitartez erabiltzen dituzten ezagutu. Modu hartara, nerabeak eta sare sozialak barnebiltzen dituen argazki bat lortuko dugu, toki eta momentu konkretu batean oinarritua, teknologia berrien garapenaren ezagutzan mugari zehatz bat ezarriz.

Hitz gakoak: nerabeak, sare sozialak, erabilerak, Gasteiz

### *Abstract*

*The objective of this research is to clarify which social network teenagers from Vitoria-Gasteiz use and how they do it. To that end, around 700 teenagers aged 12 to 18 and resident in Vitoria-Gasteiz have been surveyed through an organized questionnaire. Among other things, the study has been carried out to know how often they use each social network and to see if there is difference across age and sex groups. Moreover, the research also wants to divulge what they use these networks for, and when and through which devices they use them. That way, we will be able to get an image that gathers social networks and teenagers, in a specific place and moment, setting a milestone in the knowledge of the development of new technologies.*

*Keywords: teenagers, social networks, uses, Vitoria-Gasteiz*

## **1. Sarrera eta motibazioa**

Ikerketa lan hau Gasteizko Udaletxeak sustatutako Gazte Planaren barnean txertatzen da, nerabeek sare sozialak zenbat eta zertarako erabiltzen dituzten ezagutzeko asmoarekin bultzatuta. Gazte Planaren asmoa, nerabeek haien artean erlazionatzeko erak aztertzea zen, jopuntuan dagoen gai bat delako.

Jakina da gazteak sare sozial hauetara konektatuta daudela eta haien artean erlazionatzeko modu ohiko bat bihurtzen ari dela, baina ikerketa gutxi daude sare sozialen ikergaia gazteetan kokatzen dutenak. Nerabeak dira teknologia berriekin batera hezitako lehenengo belaunaldia, beraz gai teknologikoei berebiziko garrantzia edukiko dute beren eguneroko bizitzan. Teknologia berri hauek haien bizitzetan eduki dezaketen eraginak ezagutze aldera, garrantzitsua da horrelako ikerketak abiatzea. Sare sozialak teknologia berri horien zati bat dira, bestelako gazteekin erlazionatzeko eran eragin zuzena daukana, helburu honekin erabiliak baitira sare sozial hauek. Gauzak horrela, beharrezko da jakitea sare sozial hauek zenbat eta zertarako erabiltzen dituzten jakitea, gizartea ulertu eta bertan parte-hartzeko moduetan eragin zuzena izango baitute etorkizun hurbilean.

Egun nerabeak diren horiek izango dira etorkizuneko gizartearen gidari izango diren berdinak, gizartea bizi eta moldatuko baitute etorkizunean. Gaur egungo egoera kontuan hartuta, erlazionatzeko moduetan teknologiak garrantzi handia izango duela susma daiteke. Horregatik, beharrezkoa zaigu elkarren artean erlazionatzeko moduak nola aldatuko diren gaurdanik ezagutzen hastea. Gizarteko kideen artean gertatzen diren harremanen nolakotasunak modu erreflexiboan aztertzen badira, modu sano eta egokiagoan burutzeko aukera emango digute. Beraz, hori izango litzateke lan honen asmo orokorra, sare sozial hauek zenbat eta zertarako erabiltzen diren ezagutzea, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen baitoaz geure bizitzetan.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

### 2.1 Arloko egoera

Hainbat dira erabiltzen diren sare sozialak, gehien erabiliak diren sare sozialak Facebook, Twitter edo Instagram izanik (IAB, 2016; GEB, 2016). EAEn gainera Snapchat sare sozialaren erabilera azpimarragarria edukiko genuke, sare garrantzitsuenen artean (GEB, 2016). Berez sare sozial modura hartzen ez diren hainbat sare ere kontuan hartzea erabaki zen ikerketa honi begira, Whatsapp eta Youtuberaren arrakasta ikusita (IAB, 2016; GEB, 2016; ORS 2015). Bi sare horiek hartu-eman sustatzen duten sareak ditugu, nahiz eta sare sozial moduan ez dauden kontsideratuta. Hala ere, azpimarratu beharra dago urtero burutzen diren ikerketek erakutsi dutela sare sozialen erabilera epe motzera oso azkar aldatzen dela, adibide modura izanik Tuentiren arrakasta eta hondoratzea urte gutxiren ostean (IAB, 2016; ORS 2015). Honek erakusten digu, oso dinamikoa eta aldakorra den gai baten aurrean kokatzen garela.

### 2.1 Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburua argia da, Gasteizko nerabeek sare sozialetan egiten dituzten erabilerak argitara ematea, horretarako hainbat azpi helburu kontuan hartuz:

- Gasteizko nerabeek sare sozial bakoitza zenbat erabiltzen duten ezagutzea eta horrekin batera, sare sozial ohikoenak zeintzuk diren argitara ematea.
- Zertarako erabiltzen dituzten eta bilatzen dituzten edukiak zeintzuk diren ezagutzea.
- Konektatzeko zein gailu erabiltzen dituzten eta noiz konektatzen diren ezagutzea.

## 3. Ikerketaren muina

### 3.1 Metodologia eta ikerketa teknikak

Nerabeek sare sozialetan egiten dituzten erabilerak neurtze aldera, metodologia kuantitatiboa erabili da, ikerketaren helburua neurketa egitea baita. Ikerketa teknika moduan, galdetegi egituratu bat erabili da, bi zatitan banatua. Batetik Google Drive bitartekoaren bidez egindako galdetegi bat eraikiz, gazteek euren ikastetxeetako ordenagailuetan berau erantzungo zutelarik. Bestalde, galdetegi fisiko bat erabiliz, plataforma birtualak eskaintzen ez zituen aukerak paperaren bitartez konponduz.

Ikerketa Gasteizko nerabeek sare sozialen inguruan egiten dituzten erabilerak izanik, unibertsoa Gasteizko nerabeak izango dira, hau da, Gasteiz hiriko 12 eta 18 urte arteko gazteak, horretarako ikastetxeetan zentratuz. Laginaren diseinura begira, bi galdetegi independente diseinatu dira, beraz bakoitzari bere lagin trataera propioa egingo zaio. Lagina diseinatzerako orduan ikastetxeen erroldan oinarritutako lagin estratifikatu proportzionala egitea erabaki zen, adinaren, ikastetxe motaren eta hizkuntzaren arabera, errealitatera hurbilpena zehatzagoa izate aldera.

Landa-lana burutzerako orduan bi galdetegiak pasatu ziren, bata ordenagailuan egiteko eta bestea eskuz betetzeko. Batetik online galdetegi edukiko genuke 687 inkestaturekin, eta bestetik paperean egindako galdetegi 729 inkestaturekin. Ikasle erroldan oinarrituz, sexuaren zein adinaren arabera banaketa horrela geratu da bi laginetan: batetik, %50 gizonak eta %50 emakumeak, eta bestetik, %70 DBHko ikasleak eta %30 Batxilergokoak. Bestalde, bi galdetegi independente direla kontuan izanda, bakoitzak bere errakuntza-tartea edukiko du:

- Online galdetegian, n=687 laginerako:  $\pm\%3,67$ ko errakuntza-tartea edukiko genuke %95eko konfiantza-mailarako (p=q=0,5).
- Papereko galdetegian, n=729 laginerako:  $\pm\%3,56$ ko errakuntza-tartea edukiko genuke %95eko konfiantza-mailarako (p=q=0,5).


Landa-lana 2016. urteko abendua eta 2017. urteko urtarrila bitartean garatu zen, Gasteizko 7 ikastetxe ezberdinetako ikasle zein langileen laguntzari esker.

### 3.2 Sare sozialen erabilera maiztasunak

Nerabeen %93ak sare sozialak egunero erabiltzen dituela adierazi du. Ia nerabe guztiak konektatuta bizi direla adierazten digu datu horrek, oso gutxi izanda egunero konektatzen ez diren nerabeak. Egunero konektatzen ez den kopuru txiki hori, nerabeen %7ak osatzen du, egunero ez konektatzeko arrazoi moduan, gurasoen kontrola eta interes, denbora edo gailu falta adierazi dutelarik. Honek erakusten du, gazteriaren ia osotasuna sare sozialetara konektatuta bizi dela, 10etik 9 nerabe egunero konektatzen direlarik. Datu horrek azaltzen digu belaunaldi berriek erabateko lotura daukatela sare sozialekiko, beren eguneroko bizitzako beste errutinetako bat bilakatuz.

Nerabeek sare sozialekiko daukaten konexioa altua dela argituta, lotura hau nola egituratzen den aztertzeari ekingo zaio, sare sozial ohikoena (IAB, 2016; GEB, 2016; ORS 2015) zein maiztasunekin erabiltzen dituzten aztertuz. Nerabeak hamaika sareren erabilera maiztasunagatik izan ziren inkestatuak, bakoitzetik egiten zuten erabilera adieraziz. Modu horretan, nerabeen artean sare sozial arrakastatsuenak zeintzuk diren ezagutzea lortuko dugu. Honez gain, sexu edota adinaren arabera erabilera ezberdina egiten den argituko da.

1. irudia. Sare sozialen erabilera maiztasuna



1.irudian ikusi dezakegun moduan, hamaika sare sozialetatik lehenengo zazpiak dira aipagarrienak, beste lauek erabilera urria dutelarik:

- 1) **Whatsapp:** Sare sozial hau dugu nerabeen artean erabiliena, nerabeen %99ak erabiltzen duelarik. Nerabeen ia osotasunak erabiltzen du sare sozial hau, garrantzi handiena duen sarea bilakatuz. Ohiko erabilerari begira, nerabeen %92ak aitortu du sare hau beti edo askotan erabiltzen duela, ohiko erabilera beste sareena baino nabarmen altuagoa izanik.
- 2) **Youtube:** Bigarren sarerik erabiliena dugu hau, ia nerabe guztiek (%98) erabiltzen dutelarik. Ia nerabe guztiek erabiltzen dute sare hau, nerabeen bizitzan irmoki txertatua dagoela erakutsiz. Erabilera ohikoari begira, %87ak erabiltzen duela adierazi du, ia 10tik 9 erabiltzaile ohikoak izanik.
- 3) **Instagram:** Gehien erabiltzen diren hiru sareetan azkenekoa dugu hau, gehien erabiliak direnen multzoa itxiz. Gazteen %85ak erabiltzen du eta %73ak erabilera ohikoa egiten du, oso erabilia izanik, erabiltzaile gehienek maiztasun handiz egiten baitute.
- 4) **E-maila:** Erabiltzaile ugari izan arren (%83), erabilera ohikoa nerabeen %17ak soilik egiten du.

- 5) **Snapchat:** Esan daiteke laugarren sare sozialik erabiliena dela, hiru erraldoietatik nabarmen aldentzen den arren, gazteen %59ak erabiltzen du eta %30ak ohiko erabilera bat egiten duelarik.
- 6) **Twitter:** Kasu honetan erabilera urria duen sare sozial baten aurrean gaude, gazteen %36ak erabiltzen duela adierazi du, hala ere %11ak soilik erabiltzen du asko edo beti.
- 7) **Facebook:** Aipagarria sare honek hain arrakasta txikia edukitzea gaztetxoaren artean, %36ak erabiltzen duela esan arren, soilik %9ak egiten baitu sarearen ohiko erabilera.
- 8) **Besteak:** Blogak, Pinterest, Telegram eta Tinder gutxien erabiltzen diren sareak dira, galdetutako hamaika sareak kontuan izanda, beraz ez dira kontuan hartzeko sareak.

Azpitarratu beharra dago gehien erabiliak diren sare sozialak (Whatsapp, Youtube eta Instagram) nabarmen ezberdintzen direla beste sareez, hiru erabilienak izanda tarte askorengatik. Snapchat dugu hurrengo sarerik esanguratsuen, hala ere sare honen erabilera asko urruntzen da erabilienak diren hiru sareetatik. Aipagarriak diren sare sozialetan azkenak Twitter eta Facebook edukiko genituzke, oraindik garrantzitsuak diren sare sozialak izanik deigarria da nerabeen artean horren arrakasta txikia izatea, bi hauen erabilera oso eskasa baita.

### 3.3 Sare sozialen erabileran ezberdintasunak adin edota sexuaren arabera

Erabilienak diren lehenengo hiru sare sozialetan zentratuz, hau da, Whatsapp, Youtube eta Instagramen zentratuz, ohiko erabileran sexu edo adinaren arabera ezberdintasunik dagoen aztertzea izango da hurrengo pausua. Horrela, gehien erabiltzen diren hiru sare sozialen ohiko erabileran berezitasunik dagoen aztertuko da, sexu eta adinari erreparaturik. 1. taulari so eginez, Whatsapp eta Youtube sareetan sexu eta adinaren arabera desberdintasunik ez dagoela argi ikusi dezakegu, nerabe guztiek modu berdintsuan erabiltzen baitituzte sare hauek. Instagram sareari erreparatzen bazaio ordea, emakumeek gizonek baino %10 gehiago erabiltzen dutela ikusi daiteke, honez gain, helduenek ere gaztetxoek baino gehiago erabiltzen dutela ikusi daiteke %10eko ezberdintasunarekin ere.

Gutxiago erabiliak diren sareetan, hots, Snapchat, Twitter eta Facebooken ere ezberdintasunak badaudela erakusten digu 1. taulak. Horrela, Snapchat sareari erreparatzen badiogu emakumeek (gizonek baino %19 gehiago) eta helduagoak (gaztetxoek baino %19 gehiago) direnek gehiago erabiltzen dutela ikusi daiteke, desberdintasunak adierazgarriak eta nabarmenak izanik. Bestalde aipatu beharra dago ere Twitter eta Facebook helduagoak direnek gehiago erabiltzen dituztela, nahiz eta orokorrean erabilera ohikoa txikia izan.

1. taula. Sare sozialen erabilera ohikoa (beti eta asko erabili) duten nerabeen ehunekoa.


	Sexua		Adina			Guztira
	Emakume	Gizon	12-13 urte	14-15 urte	16-18 urte	
Whatsapp	%93	%91	%90	%92	%93	%92
Youtube	%86	%87	%84	%88	%88	%87
Instagram	%78	%68	%68	%73	%78	%73
Snapchat	%39	%20	%19	%30	%38	%30
Twitter	%9	%13	%9	%8	%16	%11
Facebook	%9	%9	%5	%9	%14	%9

Beraz, azpitarratu beharra dago erabilienak diren Whatsapp zein Youtube sareetan ez dagoela ezberdintasun aipagarririk ohiko erabiltzaileei begira. Instagram ordea, emakumeek eta nagusiagoak direnek gehiago erabiltzen dutela argi geratu da. Adinari begira, helduagoak diren nerabeek sareak maiztasun handiagoz erabiltzen dituztela gaztetxoagoekin konparatuta (Instagram, Snapchat, Twitter eta Facebook). Emakumeek oster, Instagram eta Snapchat gizonek baino gehiago erabiltzen dituztela ikusi da. Ondorio moduan esan daiteke, helduagoak direnak zein emakumeak maiztasun handiagoz konektatzen direla sare sozialetara.

### 3.4 Sare sozialen erabilera ezberdinak


Aurreko ataletan sare sozialak zenbat erabiltzen diren azaldu da, sare sozial batzuk besteen gainetik nabarmenduz eta sare sozial batzuk guztiz baztertuz. Horrela, ikerketa lan honetan erabilera maiztasun handiena duten hiru sare sozialei arreta berezia jarriko zaie, hau da, Whatsapp, Youtube eta Instagrami arreta berezia jarriko zaie. Atal honen asmoa nerabeek sare sozial ohikoak zertarako erabiltzen dituzten aztertzea izango da beraz, aurrez pentsatutako 20 erabilera ezberdinen artean zeintzuk erabiltzen dituzten adieraziz.

#### 2. irudia. Whasappen erabilerak




**Whatsappi** dagokionez, gazteen %82ak bere lagunekin komunikatzeko erabiltzen du, eta horretarako erabiltzen da gehien bat sare sozial hau. Ehuneko horretatik oso urrun aurki ditzakegu beste erabilera guztiak. %30 inguruk ligatzeko, ikasketetarako zein haien lagunei jarraitzeko erabiltzen dute. Ehuneko txikiagoan, %25ak baino gutxiago, egunerokotasuneko gaiet buruz hitz egiteko, jende berria ezagutzeko edota kuxkuseatzeko erabiltzen dute. Horrela, erabilera oso konkretua daukan sare soziala dugu Whatsapp, gazte gehienek gertuko jendearekin komunikatzeko helburuarekin erabiltzen baitute. Honek erakusten digu kontaktu zuzena bilatzen duen sare soziala dugula, ezagunekin konektatuta mantentzen gaituelarik. Ezagunekin konektatuta egoteko erabilera nagusi honek, daukan erabilera ohikoarekin erlazionatuz, sare hau berehalakotasunarekin lotzera bultzatzen gaitu, ezagunekiko etengabeko konexioan oinarritzen dena. Kontaktuekin edozein toki edo momentutan komunikatzeko aukera ematen duelarik, **kontaktuzuzena eta berehalakotasuna uztartzen dituen sarea** izanik.

#### 3. irudia. Youtuberen erabilerak



**Youtube** bideoak partekatzeko plataforma den aldetik %79ak musika edota bideoak ikusteko erabiltzen du sare sozial hau. Nerabeen erdiak, %50ak, jende famatuari edota azken urte hauetan horren famatu egin diren influencerrei jarraitzeko erabiltzen dute. Horren atzetik, intereseko gaiari jarraitzeko erabiltzen dute Youtube nerabeen %47ak. Aipagarria den azken erabilera kuxkuseatzea izango litzateke, nahiz eta aurreko erabileretatik urruti xamar, %23ak erabiltzen du helburu honekin. Ikusi den moduan erabilera oso teknikoak duen sare sozial baten aurrean aurkitzen gara, erabilera bat besteen gainera bereziki nabarmentzen delarik. Ez da sorpresa sare honen erabilera ohikoena bideoak ikusi edota musika entzutea izatea. Nerabeek hortaz, **ikus-entzunezko edukiak jasotzeko** erabiltzen dute sare hau, gehienbat famatuak jarraitzeko asmoarekin.

#### 4. irudia. Instagramen erabilerak



Aurreko bi sare sozialen erabilera maiztasunetik urrutiago, baina oraindik hurbil, **Instagram** dago. Sare hau, gazteen %71gatik erabilia da haien lagunari jarraitzeko, sare honen erabilera ohikoena izanik ezberdintasun nahikorekin. Gazte askok ere, bitarteko hau erabiltzen dute jende famatua edo influencerrei jarraitzeko (%57). Edukiak publikatzen ditu %55ak eta horrez gain, intereseko dituzten gaiak jarraitzeko ere erabiltzen du nerabeen erdiak. Ia erdiak kuxkuseatzeko eta lagunekin komunikatzeko erabiltzen du (%49), baina baita jende berria ezagutzeko (%44), bideoak ikusi eta musika entzuteko (%42), markei jarraitzeko (%32) eta, baita, nor diren espresatzeko (%31) ere. Haietzako erabilera gehien duen sare soziala dela esan daiteke, nahiz eta Youtube eta Whatsapp baino gazte gutxiagok erabili. Sare sozial honen arrakasta modu bakarrean ulertu daiteke, hainbat erabilera barnebiltzeko daukan gaitasunak ematen dio horrenbeste arrakasta. Sare honek daukan ahalmena gai hurbilak eta gai globalak uztartzean oinarritzen da, batetik gai hurbilak diren lagunak jarraitu edo lagunekin komunikatzea bezalako ekintzak, bestetik gai globalak diren famatuak jarraitu edo intereseko gaiak jarraitzea bezalako ekintzak. Modu honetan **gai orokorrak zein hurbilak uztartzeko sarea** edukiko genuke, argazkiak publikatzearen sinpletasunean oinarrituz.

Oso atzean geratu dira Twitter eta Facebook, iraganean izan zuten garrantzia ia erabat galduz nerabeen artean. Alde batetik, Twitterren erabilerei begira, %32ak jende famatua jarraitzeko erabiltzen du, %29ak intereseko gaiak jarraitzeko eta %27ak haien lagunak jarraitzeko. Beste alde batetik, Facebooken erabilerei erreparatu, aipagarria den erabilera bakarra lagunak jarraitzea da, %24ak erabiltzen duelarik horretarako.

Ikusi dugun moduan, aisialdiarekin lotutako erabilerak dira gazteek sare sozialetan egiten dituzten erabilera ohikoena, gertukoak edo orokorrak izan. Erabilera hauek sarearen arabera aldatzen diren arren, esan daiteke gertuko harremanak zein tendentzia globalak uztartzen dituzten mekanismoak direla, laguntalde zein munduarekin konektatzea ahalbidetuz. Modu honetan, beren aisialdi moduak garatu eta jorrazteko berezko espazio modura kontsideratu daitezke sare sozialak, nerabeen behar eta nahietara egokitzen diren ekintza birtualak burutuz. Aipatzekoa da ere, nerabeek beren aisialdi modu propioak garatzeko baliatu duten esparru hau helduen kontrolatik aldentzea dela, euren askatasun esparrua lortuz.

### 3.5 Jarraitzen dituzten gaiak

Gehien jarraitzen dituzten gaiak erreparatuz, maiztasun handiarekin gehien jarraitzen dituzten gaien artean famatuak (%62ak beti edo askotan jarraitu), serieak eta zinema (%51ak beti edo askotan jarraitu), musika (%46ak beti edo askotan jarraitu) eta kirola (%33ak beti edo askotan jarraitu) dauzkagu. Aipatutako gai hauek dira gaztek maiztasun handierekin gehien jarraitzen dituzten sareak, guztiak aisialdi gaiekin erlazionatuta eta famatuak garrantzitsuenak izanik. Beste aldean, gutxiago jarraitzen dituzten gaiak dauzkagu, ikasketak (%21ak beti edo askotan jarraitu), albisteak (%18ak beti edo askotan jarraitu) edota politika eta gizartea (%9ak beti edo askotan jarraitu) bezalako gaiak oso modu eskasean jarraitzen dituztelarik. Ikusi den moduan, norberaren bizitzarako garrantzizkoagoak izan daitezkeen kontuak modu lausoagoan jarraitzen dituzte gazteek, lan, ikasketa, informatua egon edo politika gaiak nerabe gutxi maiztasunez jarraitzen baitituzte. Esan daiteke ardurak hartzearekin erlazionatzen diren gaiak arbuia egiten dituztela, soilik kontu ludikoek pizten dutelarik haien interesa. Horrela, sare sozialak gehienbat aisialdi ekintzetarako erabiltzen dituztela azpimarratu behar da, aurreko puntuan azaldutakoarekin bat etorri eta sareak “*deskonektatzeko*” erabiltzen dituztela konfirmatuz.

### 3.6 Moduak: konexiorako gailuak eta momentuak

Konexiorako erabili den gailua sakelako telefonoa dugu, nerabeen %93ak tresna hau gehien erabiltzen duen tresna dela adierazi du sare sozialetara konektatzeko orduan. Bestelako gailuak gehien erabiltzen dituzten gazteak gutxi dira, ordenagailua gehien erabiltzen dutenek %5 izanik eta tableta gehien erabiltzen dutenek %3 izanik. Honek erakusten digu sakelako telefonoa nagusi dela sare sozialetan konektatzeko orduan, gazteen ia osotasunak hobesten baitu. Konexiorako bitarteko hau modo masiboan erabiltzeak esan nahi du, gazteen ia osotasunak edonon eta edonoz konektatzeko aukera daukala, gazte hauek kontaktu etengabean mantenduz.

Momentuei begira, gazteek konektatzeko hobesten dituzten momentuak arratsalde (%80) eta gaua (%57) dira, haien denbora librearekin erlazionatuta egon daitezkeen momentuetan konexio hori emanaz. Bestalde konexio momenturik txikiak eguerdi (%30) eta goizean (%12) dira, okupatuak dauden momentuak izanik, ikasten dauden momentuak hain zuzen.

## 4. Ondorioak

Gasteizko nerabeek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak Whatsapp, Youtube eta Instagram direla argi geratu da ikerketan zehar, beste sare sozialetatik nabarmen aldenduz. Esan beharra dago Whatsapp eta Youtubek erabilera konkretuak dauzkatala, lehenengoa lagunekin komunikatzeko erabiliz eta bigarrena bideoak ikusi edo musika entzuteko erabiliz. Instagramek oster, hainbat erabilera ezberdin uztartzen ditu, kontaktu zuzen eta hurbila (lagunekin komunikatu eta lagunak jarraitu), gai orokor eta globalekin lotuz (famatuak jarraitu, intereseko gaiak jarraitu).

Erabileretara begira, aipatu beharra dago sare sozialen erabilera aisialdiarekin zuzenean erlazionatuta dagoela, orokorrean aisialdi gaietarako erabiliak baitira sare sozialak (lagunekin komunikatu edo jarraitu, famatuak jarraitu, bideoak ikusi edo musika entzun...). Famatuak jarraitzea bezalako gai orokorrak, ezagunekin komunikatzea bezalako gertutasun ekintzekin uztartzen dituzte nerabeek, haien aisialdian lokaltasun eta globaltasun gaiak uztartuz. Era berean, sare hauen funtzio ludikoa kontuan hartuz esan daiteke, nerabe gehienak *deskonektatzeko* asmoarekin konektatu egiten direla sare sozialetara.

Moduetara igaroz, sare sozialetan murgiltzeko sakelako telefonoa erabiltzen dute ia nerabe guztiak eta arratsalde zein gaua dira konektatzeko erabiltzen dituzten denbora tarte ohikoak. Sakelako telefonoak ahalbidetzen duen mugikortasunak, nerabeei etengabe konektatuta egoteko ahalmena ematen die, imajinatu ezin daitezkeen aukera guztiak bereganatuz. Era honetan kontaktu etengabe egoteko aukera daukate bai gertuko jendearekin eta baita munduko edozein tokian dagoen norbaitekin. Honez gain, informazioa jasotzeko eta haien interesekoak diren gaiak jasotzeko ere, edozein momentutan edonon daudela ere lortu dezakete. Garai berrien ezaugarri izango den etengabeko konexio honek, bitzta oso bat haien *eskura* jarritz.



Amaitzeko, aipatu beharra dago Facebook eta Twitterrek nerabeengan daukaten arrakasta txikia, publiko helduagoan daukatenarekin konparatuta. Era honetan, ikerketa honek erakutsi du nerabeek Instagram nahiago dutela, populazio helduagoaren nahiekin ezberdintzen. Nerabeak sare sozial hori gehiago erabiltzeak, helduengatik ezberdintzen direla erakusten digu, esparru propio eta berezituak nahiago dituztela erakutsiz. Honela, sare sozialak gazteen askatasun esparru modura kontsideratu ditzakegu, beren lagun eta gertukoekin esparru hori konpartituz. Esparru fisiko gehienak helduen botereak bereganatu dituzenez, nerabe hauek beren esparru propioak bereganatzeko moduzat jo daiteke sare sozialetan gertatzen dena. Helduen begirada eta kontroletik aldentuta dauden esparru modura egituratzen dira esparru birtual hauek, nerabeen sorkuntzari ateak irekiz. Nerabeek esparru propioa izateko behar horrek ere, generazio edo garai konkretuetako gazteek beren esparru propioak eraikitzen dituztela erakusten digu, denboran aurrera egin ahala aldatzen joango delarik. Modu honetan, badirudi garaiko beharren arabera sare batetik bestera saltoa ematen dela, Tuentitik Facebookera eman zen moduan, gaur egun ere Facebooketik Instagramera ematen ari da. Honi gehituz, gazteak direla sare sozial modakoa zehazterako orduan abangoardia direnak, teknologia hauekiko daukaten atxikimenduak emandako estatusari etengabe konektatua egotearen ezaugarria gehituz. Hortaz, sare sozialak gazteen esparru propio modura kontsideratu genitzake, muga fisikoak apurtzen dituzten esparruak izanik, hartu-emanak mundu birtualean garatzen direlako eta konexioa edozein tokitik egin daitekeelako, lagunarte birtuala eskuan txertatuz.

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Komunikazio eta informazioaren teknologiek zein kontsumismoak bultzatuta, etengabe aldatzen ari den gizarte likido honetan (Bauman, 2000) ezinbestekoa da momentu konkretuetan gertatzen dena ikertzea. Soilik momentu zehaztuetan gertatzen dena aztertuz hurbildu gaitzkeelako gizarte geroz eta aldakorrago hau ezagutzera. Baina, aipatutako gizarte likido honen ezaugarri nagusia dinamikotasuna izanik, hau da, etengabe aldatzen ari dela izanik, beharrezkoa zaigu momentu zehaztuetan zentratzen diren ikerketa hauek behin eta berriro errepikatzea.

Sare sozialak teknologia berrien gaiaren atal konkretu bat besterik ez dira eta duda izpirik ez dago teknologia berri hauek eraldaketa nabarmenak sorraraziko dituztela gizartean. Honela, gaiaren konplexutasun eta dinamikotasuna kontuan hartuta, horrelako argazki koiunturalak epe ertainera burutzea komenigarria izango litzateke, denbora laburrean abagunea guztiz aldatu daitekeelako. Horregatik, teknologia berriak gure eguneroko bizitzan nola txertatzen doazen ezagutzeko prozesuan mugarri txiki bat besterik ez da ikerketa hau. Era honetan irekita geratzen da antzekotasuna duten gaiak ikertzeko aukera, egindako ikerketa honekin erlazionatuz, gizartearen ezagutzaren argazki konkretu bat lortzeaz gain, istorio dinamiko bat kontatuko diguna.

## 6. Erreferentziak

Bauman, Z. (2000): *Liquid Modernity*. FCE, Buenos Aires.

Gazteen Euskal Behatokia (2016): *Euskadiko Gazteak eta Sare Sozialak*. Eusko Jaurlaritza.

IAB (2016): *Estudio Anual de Redes Sociales 2016*. IAB\_Spain, Madril.

Observatorio Redes Sociales (2015): *Observatorio de Redes Sociales VII oleada*. Arena.

## 7. Eskerrak eta oharrak

Ezingo litzateke lan hau amaitu berau osatzen lagundu duten pertsonen aipamen berezi bat egin gabe. Nola ez, Gasteizeko Udaletxeko Gazteria Zerbitzuko langileei, bereziki lan honen sustatzaile izandako teknikariari, Modesto Amestoy jaunari, eskerrik asko bihotzez bide hau irekitzeagatik. Bigarrenik, baina ez garrantzi urriagoarekin, aldamenen izandako bi lankideei, Ixone Santamaria eta Unai Redondo, beraiek gabe lan honetarako beharrezkoak izan diren datu eta ondorioak oraindik bidean egongo zirelako. Amaitzeko, esker mila Andrea Lizeagari, sare sozialen munduan murgiltzen laguntzeagatik eta hizkuntza kontuetan emandako laguntzagatik, guztiagatik.